


Liburuak

KRITIKA

Nur eta irlandar gnomoa.
Toti Martínez de Lezea; Juan Luis Landa
(irudiak). Erein. 152 orrialde. 12 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Nurren lehen istorioa

HAU DA, OKER EZ BAGAUDE, Toti Martínez de Lezeak nobela historikotik at idatzitako lehen haur liburua. Gazteentzat eginko zenbait lan historikoren ondoren Nur neskatoaren istorio hau aurkezten digu idazle gasteiztarrak.

Hasiera-hasieratik badira liburu honen nondik norakoa ezagutzeko baliagarriak zaizkigun kontu batzuk, lehen esaldietan ikus daitekeen bezala:

“Nur dut izena. Ez Noor, ezta Nour ere. Nur, soil-soilik.

Nire herriaren izena zail samarra da esaten. Larrabetzu.

Amarekin eta *Babarekin* bizi naiz; aita esan nahi du arabieraz.

Hirurok bakarrik.”

Hots, lehen pertsonan narraturik dagoen istorioa dugu, aita arabiarra eta ama euskalduna dituen neskato batek kontatua... baina, era berean, oso bitxia gertatzen zait euskal irakurle bati Larrabetzu izena zaila egiten zaiola pentsatzea (ala erdal irakurleak daude idazlearen buruan?), eta letra etzanetan liburuan —euskarazko bertsioan— ageri diren akats ugarietako lehena aurki dezakegu.

Nur eta irlandar gnomoa oso istorio sinplea da, erraz irakurtzen dena, Nur neskatoak aitona-amonaren etxean aurkitzen den gnomo batekin duen harremanari buruzko istorioa. Irakurlea Nurrekin identifikatu eta poliki-poliki Finn gnomoaren egoeraz eta geroaz kezkatuko da, bai eta neskaren ateraldi eta burutapekin gozatu ere. Alde horretatik liburuak badu intriga edo tentsio puntu txiki bat. Zer gertatuko zaio Finni? Itzuli ahal izango da bere herrira? Aurkituko ote du helduren batek?

Toti Martínez de Lezeak aspaldi erakutsi zigun istorioak kontatzeko duen abilezia, liburu honetan trebetasun hori haur literaturan erabiltzen du, eta badu *Bostak* edo lagun taldea protagonistan duten sail horien antza; izan ere, Nur hiruki batzuekin (Noelia, Ainara eta Unai) eta Kuka zakurrarekin ibiltzen baita jolasean. Denen artean bilatuko diote irtenbide zoriontsua aitona eta amonaren etxeko zaborretan dagoen gnomo irlandarrari.

Eraz eta arin irakurtzen den istorioa dugu liburu honetakoa; ederki eginak diren koloretako irudi ugariz lagundurik eta formatu nahiko zainduan (nabarmena da argitaletxearen apustua alde horretatik), hala ere, nire ustez argumentu oso laua eta edizioa —itzulpena ez oso zaindua, testuan ageri diren akatsak, aurkibide eza...— hobetu beharko lirake hurrengoetarako, ziur bai-kaude irlandar gnomo honen istorioaren ostean Nurrek beste batzuk biziko dituela, eta guk ere bai.

Maisuaren eta esfingearen komiki ikusgarria

Saure argitaletxearen eskutik publikatu da Jean François Saure “Jansain” eta Pablo Zerdaren *Esfinge negartia* komikia. Jatorriz gaztelaniaz idatzitako lana da, eta Karlos Zabala arduratu da euskaratzeaz. Edizio dotorea egin diote Saurekoek liburuari, kolorez betetakoa eta azal gogorrekin. Mamiari dagokionez, honakoa kontatzen du liburuak: maisu gazte batek



Esfinge negartia.
Jansain /
Pablo Zerda.
Saure.
48 orrialde.
16 euro.

esfinge batekin topo egingo du, eta elkarrekin hainbat egoerari egin beharko diote aurre. Tim Burtonen *The nightmare before Christmas* animazio filmeko irudiak gogorazten dituzte marrazkiek, eta bigarren mailako pertsonaiek —esku-orga biziduna edo burtsako agente maltzurra, besteak beste— autoezagutzaz, laguntasunaz eta zintzotasunaz pentsaraziko diete protagonistei. ■

Euskararen apologistez eta maisetzaileez

XVI. mendetik XIX.era bitarteko urteetan euskararen inguruan idatzi eta esan diren ikerketa egin du Juan Madariaga Orbeak *Apologistas y detractores de la lengua vasca* liburu mardulean. Liburuaren abiapuntua galdera batean dago: zergatik piztu dituen historian zehar hainbesteko eztabaidak oso hiztun gutxi izan dituen hizkuntza batek; are administrazio publikoan baztertuta izan denean eta literaturan presentzia oso eskasa duenean. Euskararen alde eta kontra idatzi zutenen iritziak kontrajarri ditu Madariagak: Mariana, Mayans edo Fernández Marinaren irainei,



Garibay, Larramendi edo Iztuetaren laudorioekin erantzunez. ■

Apologistas y detractores...
Juan Madariaga Orbea.
FEDHAV.
677 orrialde.
20 euro.